

30 urteren buruan

1989. urtean UZEI onura publikoko erakunde izendatu zuten, 1977. urteaz geroztik "Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorra sustatzen duelako". 30 urte daramatza horretan, eta norbaitek 30 urte daramatzanean onura publikoko lanean ospatu beharra dago; ospatu beharra dago, eta hats eta indar berria eman beharra dago, filosofia berarekin jarrai dezan. Filosofia hori argitzeko, gure estatutuetara jo izan dugu, gure helburuetara, gure "misiara", ... eta horren adierazgarri, datu bat: 30 urteren buruan, terminologia eta lexikografia egiteko ezagutza baizik ez dauka UZEIk bere aktiboan. Informazioaren eta ezagutzaren gizarte deritzogun honetan, altxor preziatua da ezagutza hori, eta hori nola kudeatu da gure erronka nagusia.

Honaino nola iritsi garen adierazteko, lau hitzetan kontatu nahi nuke UZEIren historia.

Hainbat aldiz kontatu dugu UZEIren historia ezaguna: nola *Jakineko* lantaldeak eraginda sortu zen Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea (UZEI), Ikastoletan ikasitako gazteak segida izan zezaten institutu eta unibertsitaterako ikasketetarako euskarazko testuak prestatu nahian; bertan espezialitate desberdinetako adituak bildu ziren, 90eko hamarkadan hainbat erakunde eta espezialitate desberdinetako irakasleak -500 lankidetik gora- aritu ziren 40 hiztegi espezializatu baino gehiago egiten. Beti aipatzen dugu Euskaltermen sorrera UZEIren baitan, edo softwareak euskaratzeko lanetan nahiz euskararen zuzentzailea egiten izandako parte-hartzea. Mugarri ezagunak dira horiek, baina badira gure ibilbidea kontatzeko beste mugarri batzuk ere.

Lehen garaia (1977-1986)

Hasiera hartan, Euskal Herriko Unibertsitateko, Udako Euskal Unibertsitateko eta beste erakunde batzuetako profesional eta aditu askok egin zuten lan bere borondatez, eta UZEIri zuzendaritza-lana zegokion hiztegi haietan. Garai hau "amateur" garaia dei genezake, terminologiako profesionalik ez baitzegoen -ba ote genekien nola egin terminologia?- eta borondate hutsez aritzen baitziren lantaldeak. Espezializazioetako ehunka adituk (500dik gora lagunek), eta diru-laguntza eskaini zuten enpresa eta finantza-erakundeek lortu zuten UZEIren orduko helburuak gauzatzea, hiztegiak eginez.

Bigarren garaia (1987-1989)

Epe honetan sortu zen EUSKALTERM terminologia-bankua. Orduan hasi ziren beste kultura-erakundeekiko lankidetzak formalak, baita atzerriko erakundeekikoak ere.

Eusko Jaurlaritzak Babespeko Elkarte izendatu zuen UZEI 1987an, eta ondoko urteetan sinatu ziren Nafarroako Gobernuarekin eta Kataluniako terminologia-zentroarekin hitzarmenak. Urte horietakoak dira Deustuko Unibertsitatearekin eta EHUrekin sinatutako lehen hitzarmenak ere.

Urte hauetan hasiko da Euskaltzaindiarentzat egin den *XX. mendeko euskara corpora*, eta urte hauetan sortuko da Lexikografia Saila.

Egoera egonkorra lortu zuen UZEIk, eta egoera horrek aurrerapen handiak ekarri zituen: banku terminologikoa telematikoki kontsultatzeko lehen aukera, adibidez (1987).

Hirugarren garaia (1990-2002)

Aldi honetan, gaur egun duen egoitzara aldatu zen UZEI. Egoitza berrian, sarean (sare informatikoan) lan egiten hasiko dira ordenagailuak, eta berrikuntza nabariak eragin zituen horrek lan-prozeduretan, baliabideak partekatzearen ondorioz. Teknologia berriei esker, aldatuz doaz prozedurak eta finkatuz doa egungo talde profesionala.

Itzulpen espezializatuek pisu garrantzitsua izango dute, lokalizazioak edo programa informatikoen itzulpenak egiteko esperientzia tarteko dela.

Oso emankorra izan zen garai hau euskal terminologiarentzat: "konbergentzia" edo adostasun-garaia dei genezake. Horrela, garapen handia ekarriko du HAEE/IVAPen eta UZEIren arteko lankidetzak estuak. Harreman honek 1997an elkarrekin antolatutako Nazioarteko Terminologia Biltzarrerara eramango gaitu.

Egoera honetan, proiektu handinahiagoi ekiteko prest dago UZEI. Horrela, Eusenor eta Klaudio Harluxet Fundazioaren sorreran parte hartzen du, Euskal Kulturgintza, Elhuyar eta Ikastolen Federazioarekin, hauek ere fundazioko patrono zirelarik, besteak beste.

Hizkuntza-teknologietan ere urrats handiak egingo dira, EHUKo Informatika fakultatearekin lankidetzan.

Laugarren garaia (2002-2007)

Espezializazioak eta profesionaltasunak markatu du epe hau.

Terminologiari dagokionez, publiko bihurtu da Euskalterm banku terminologikoa, eta UZEIk hura elikatzen eta mantentzen jarraitzen du. Urte hauetan, metodologia zorrotz eta berrituenak jarraituz, lexiko berezia sistematikoki sortzen eta biltzen duen zentroa da UZEI. Euskal Herritik kanpo ere, jakin-mina sortu du, adibidez, corpusetan oinarrituriko terminologia egiteko gure metodologiak.

Lexikografia sailak, berriz, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearentzat egiten du lan; lan oso espezializatu hau ere.

Bestalde, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean onartua izan da UZEI, ikerketan duen eskarmentua aintzat hartuta. Garai honetan, are gehiago nabarmenduko da UZEIko langileen espezializazio-maila, eremu espezializatu hauek ukitzen baitituzte esku artean dauzkagun hiru ikerketa-proiektuek: itzulpen-memorien kudeaketa aurreratuak, terminometria eta hizkuntza-corpusen kudeaketa.

Luzea izan da ibilbidea, baina gauza batzuk ez dira aldatu. Orain 30 urte bezala, euskararen normalizazioaren alde jartzen dugu orain ere gure ezagutza, gure aktibo guztia: batez ere, lexiko berezian, alegia, terminologian.

Imanol Urbieta
UZEIko zuzendaria